

# WIKIKRAZIA

## elkarlaneko gobernantza

Testu honetan, Wikitokiren eta soziokraziaren historia pixka bat aurkituko duzu, galdera hauei emandako erantzunekin batera: **Nolako egitura daukagu? Nola hartzen ditugu erabakiak? Nola zaintzen dugu elkar? Nola konpontzen ditugu gatazkak?**

Wikikrazia ez da formula bat, eta ez dago berori ezartzeko metodo bakar bat. Material honekin, beste entitate, antolakunde eta kolektibo batzuk inspiratu nahi ditugu: gobernatzeko eta elkar zaintzeko ereduak berrikusi, esperimentatu eta egokitzera bultzatu nahi ditugu, eta hausnarketari bide eman.

Wikitoki Elkarsorkuntzarako Laborategiak egin du lan hau. 2024.

## Sarrera

### Wikikrazia

Wikitokiren gobernantza-eredua.

Elkarlaneko antolaera hau soziokrazian oinarritzen da, Wikitokiren DNA ere baduen soziokrazian, eta arreta berezia jartzen die bai erantzuKIDetasunari eta zaintzari, bai afektuei eta emozioei.

### Wikitoki

Hamar urte autogestioarekin esperimentatzen.

#### **KOMUNITATE IREKIA GARA**

Gure profesionalak pertsonen eta beste espezie batzuen bizimoduak, harremanak eta bizitokiak eraldatzeko proiektuak garatzen dituzte.

#### **EGITEKO MODU BAT GARA**

KIDetasuna dugu lotune, kolektiboa, elkarlanekoa, kooperatiboa edo erkidea den hori, eta izaera esperimantal eta eraldatzailea daukagu.

#### **TOPAGUNE BAT GARA**

Askotariko agente eta diziplinen arteko elkarrizketa eta hibridazioa bilatzen ditugu, aurretik dauzkagun erronka konplexuak eta trantsizioak joratzeko.

#### **ANTOLATUTA GAUDE**

2014tik, bidea jartzen diegu elkarlaneko jardueri.

Tokiak eta baliabideak partekatzen ditugu, harremanak lantzen ditugu, eta taldean ikasten dugu.

#### **BILBOKO SAN FRANTZISKO AUZOTIK**

Tokiko, Estatuko eta nazioarteko sare formal eta informalen zati aktiboa gara.

### Wikitokiren ildo estrategikoak

**WIKILAB** - Esperimentatu eta sistematizatzeko laborategia

**WIKIKOOP** - Aldaketari bide emateko zerbitzuen zorroa

**WIKISARE** - Kidetasun, ordezkaritza eta elkarrizketarako sarea

## Historia apur bat: asanblearismotik Wikikraziara

### 2014-2018: Bost urte biltzar bidezko ereduari jarraikiz

Wikitokiren lehenengo gobernantza-eredua erraza eta konplexua izan zen aldi berean.

Talde-lanetik, esperientzien batasunetik eta gurekin harremana zuten antzeko ekimenetatik abiatuta, eredu horizontal, garden, antolatu eta erantzuKIDEa bilatu genuen, modu kritikoa bilatu ere. Eredu hori elementu hauen bidez antolatzen zen:

- Biltzar bat,
- Lantaldeak,
- Auzolanak (komunitate osoaren topagune estrategikoak),
- Denboraren banku bat.

Adostutako protokoloak eta funtzionamendu-gidalerroak biltzen zituen barne-araudi batean kokatzen zen guztia.

Aldi hartan, izugarri esperimentatu genuen, mikro mailan, kudeaketa eta ekoizpen sozial, kultural, teknologiko eta espazialaren arloan. Pilatutako eskarmentuarekin, [Qué es y cómo funciona Wikitoki](#) materiala ondu genuen.

### 2018-2019: Soziokrazia eta eredu-trantsizioa

Wikitokin, funtzionamendu kaordikorako joera daukagu (kaosaren eta ordenaren artean ibiltzen gara etengabe), gutxieneko protokolo bideragarriaren eta gehieneko moldagarritasun desiragarriaren arteko oreka lortu nahian. Soziokraziaren berri izan genuenean, ereduz aldatzeko bitartekoak jartzea erabaki genuen.

#### Soziokrazia

*Soziokrazia hiru printzipiok (gardentasunak, efizientziak eta ekitateak) eta lau arau hauek osatzen dute: 1) zirkulu erdi-autonomoetan oinarritutako antolaketa, 2) adostasunezko erabaki-hartzea, 3) hautagaitzarik gabeko hautaketa irekia eta 4) lotura bikoitza.*

1980ko hamarkadan hasi ziren soziokrazia garatzen, Herbehereetan, eta, asko sinplifikatuta, zera da: bertikala horizontal eta horizontala bertikal bihurtzea proposatzen duen gobernantza-sistema bat.

**Erakundeak sistema bizitzat jotzea proposatzen du;** hala, erakundeek, erabakiak malgu eta eraginkor hartu, gauzatu eta ebaluatzeko gai izan daitezen, ingurunera egokitu behar dute, beren burua erregulatuz eta hiru baldintza hauek betez:

1. Sistemako elementuek ez dute elkar kontrolatu behar, eta elementu batek ere ezin die bere borondatea besteei ezarri, alde bakarretik jardunez.
2. Sistemak kanpoko energia-iturri bat dauka, eta iturri horrexek mugiarazten du.
3. Sistemak atzeraelikadura-sistema bat dauka.

**Erabakiak hartzeko eta gobernatzeko metodo honek:**

- Partaidetza eta erantzuKIDEtasuna garatzen ditu.
- Adimen kolektiboari boterea ematen dio, eta antolakundearen arrakastarako zerbitzura jartzen du.
- Edozein neurritako kolektiboetan aplikatu daiteke.

#### Trantsizioari ekiteko arrazoiak

- **Bizitzak erdigunean jartzen jarraitzea**  
Amankomunekoari eta zaintzei eskaini behar zaizkien denborak doitzea.
- **Boterearen banaketa hobetzeko sistema bat bilatzea**  
Proiektu komuna garatzeko erantzuKIDEtasuna eta inplikazioa areagotzea, proiektuarekiko lotura eta proiektuaren gaineko ezagutza handitzea, guztion eragiteko gaitasuna handitzea, ahotsak eta legitimitateak areagotzea, rolak txandakatzea, jatorrizko metaketan edo meritokrazia ezkutuan oinarritutako logikak haustea, kidego-sentimendua garatzea, sormena areagotzea eta askotariko iritziak ugaritzea.
- **Eraginkortasuna handitzea**  
Kolektiboarekiko konfiantza lantzea eta erabakiak hartzean arreta, eraginkortasuna eta

arintasuna areagotzea.

### **Trantsizio-prozesuaren oinarriak:**

- Gobernantza soziokratikoaren eredia eta printzipioak ezagutzea.
- Erakundearen beraren egoera aztertu eta aldaketari ekiteko dauzkagun balaztak eta motorrak ikustea.
- Soziokrazia Wikitokira egokitzeko oinarriak planteatzea, gure egitura eta antolaketa-kultura aintzat hartuta.
- Soziokraziaren prozedurak eta erreminta zehatzak praktikatik esperimintatzea, maila pertsonal eta kolektiboan barneratzeko.
- Wikikraziaranzko trantsizio-plan bat ezartzea, hura ebaluatzen joatea, eta taldeko ikaskuntza-prozesu moldagarri eta jarraitutzat jotzea.

### **Trantsiziorako urratsak eta ekintzak:**

1. Biltzarra oinarri, taldean adostuta erabakitzea **zenbat denbora eta diru eskaini** behar den gobernantza-eredua aldatzeko eta trantsizioa bizitzeko.
2. Wikitokiko lau kidek eraturako **talde eragilea sortzea**, trantsizio-prozesua gidatu, planifikatu eta kontrastatzeko eta Wikitokirako material nahiz metodologia espezifikoko sortzeko.
3. Talde eragileak Arterra ekimenaren **bidelaguntza aditua** jasotzea eta soziokraziari buruzko bi lantegi egitea, komunitate osorako, Wikitoki berrikusteko xedez.
4. Denon artean Wikitokirako **governantza-eredu berria sortzea**.

Prozesu guztian, **eredu berria hariz hari elkarrekin ehuntzeko, errazte-lana, praktika artistikoak, esperimentazioa eta Wikitokiren DNA** erabili genituen. Komunitate osoaren inplikazioarekin zehaztu genituen zirkulu, rol eta metodologia bakoitza, aurretik ondo funtzionatzen zuten eta, beraz, mantendu nahi genituen rola eta dinamikak txertatuta.

## **2020-2024: Wikikrazia**

**Wikikrazia** Wikitokiren gaur egungo gobernantza-eredua da.

Soziokrazian oinarritutako **eredu propioa da, elkarlanekoa, autogestionatua**, horizontala eta antolatua, eta erdigunean ipintzen ditu zaintzak. Beste ekimen batzuekin partekatzen dugu, zabal-zabal.


**Esperimentu praktiko eta bizia** da: bost urteotan, aurrera egin du antolaketa-egitura gisa ez ezik, baita elkarlaneko eta elkarsorkuntzako ekosistema sutsu gisa ere, eta Wikitokiko kideen parte-hartze esanguratsu eta jasangarria sustatu du.

**Soziokraziaren oinarrizko egiturari** eutsi dio, eta **zaintza-, sormen- eta komunitate-geruzak** gehitu ditu, ekintza guztietan ikuspegi gizatiarra, kolaboratiboa eta sortzailea txertatuta.

## Nolako egitura daukagu?

### Zirkulua, erabakiak hartzeko gune

Soziokraziak maila anitzeko zirkulu erdiautonomoetan antolatzea proposatzen du, eta kudeaketa-zirkuluetan taldekatzen ditu zeregin operatiboak nahiz zeregin horiei lotutako erabakiak. Zirkulua da hitz egiteko eta erabakiak hartzeko gunea. Eginkizun argia eta jardun-esparru zehaztua dauzka. Helburuak lortu behar ditu, barne-maila hobetuta eta kideen garapena zainduta. Behar adina zirkulu ezar daitezke, eta guztiak egongo dira koordinazio-zirkuluari lotuta.



### Wikikraziaren egitura:

Zirkuluak (kudeaketako hiru + koordinazioko bat) + topaketak (bi)

Wikitoker guztiak (komunitateko kide aktiboak) zirkulu hauetan banatzen dira:

- 1) **Coti**, barne-harremanetarako eta komunitatea dinamizatu eta zaintzeko.
- 2) **Remedios**, baliabideak, tokia eta komunikazioa kudeatzeko.
- 3) **Colajet**, kanpo-harremanetarako eta beste agente batzuekiko harremanetarako.
- 4) **Koordinatoki**, kontu orokor eta estrategikoetarako.

Zirkulu guztiek daukate:

- Jarduteko toki propioa, bere eskumen-eremu, eginkizun eta zereginekin.
- Urteko ekintza-plan bat; haren bidez Wikitokiko beste kide batzuei zeregin operatiboak eskuordetu ahal zaizkie.
- Lau rol banatuta: erraztailea, idazkaria eta lotura bikoitza. Koordinatokiaren zirkuluan, koordinatzailearen rola ere badago.
- Hileko bilerek bi orduko iraupena dute gehienez, eta gai-zerrendaren eredu amankomunean honako hauek daude: gai estrategikoak, eguneroko kudeaketari eta informazioari dagozkien gauzak, hausnartzeko gaiak, gai erabakigarriak eta zaintzen inguruko kontuak.
- Erabakiak eta informazio garrantzitsua urtean behin ebaluatzeko eta hilean behin

erakundeko gainerako kideei helarazteko sistema bera.

Wikitokiko **koordinatzaile** nagusiaren rolak Koorditoki zirkuluan baino ez du parte hartzen. **Idazkariak** gai-zerrenda prestatu, akta jaso eta erabakien nahiz bestelako gai garrantzitsuen laburpena bidali behar die Wikitokiko kide guztiei. **Erraztaileak** bilerak gidatu behar ditu, taldearen egoera aztertzen du eta parte har dezaten bermatzen du.

Koorditokik bi **topaketa** antolatzen ditu urtean taldearen kohesioa eta baterako ikuspegia atxikitzeko: bizikidetzari lotutakoa da bat (udaberrian egiten dugu, Bilbotik kanpo), eta bestean jarraipena eta ebaluazioa egiten ditugu (neguan). **Wikizainek**, bestalde, emozio-kudeaketan ardaztutako topaketak antolatzen dituzte urtean zehar.

## Lotura bikoitza egituraren

*Informazioak bide bikoitza dauka. Zirkulu bakoitzaren eta koordinazio-zirkuluaren artean, lotura bikoitza dago; hau da, pertsona batek informazioa konektatzen du norabide batean zein bestean. Lotura-rola dutenek eskubide osoa dute bi zirkuluetan.*

*Lotura bikoitza ondo koipeztatuta egon behar da, era horretan, zera bermatzeko: ikuspegi orekatuak eta gardentasuna egotea, eta informazio- eta erabaki-fluxua bi noranzkoetan izan dadin.*

### Lotura bakoitzaren eginkizunak:

#### 1. lotura: KoordiAhotsa

- Informazioa koordinazio-zirkulutik kudeaketa-zirkulura eramaten du.
- Begirada makroarekin eta kolektibo osoaren ikuspegi estrategikoarekin koordinatzen du kudeaketa-zirkulua.

#### 2. lotura: TaldeAhotsa

- Kudeaketa-zirkulutik koordinaziokora eramaten du informazioa.
- Zirkuluaren ahotsa da: entzun eta ordezkatu egiten du. Arreta jartzen du zirkuluaren sentipenetan eta pentsaeran.

## Denboraren bankua, orekatzeko

Wikitokerrek lanean emandako denbora eta zer lan egin dituzten jasotzen dute online tresna honetan. Denboraren zaindariak eta ostalariak urtean bi aldiz berrikusten dituzte (ekainean eta urrian).

Kide bakoitzak egitasmoari emandako konpromisoa jaso eta ikusarazten da horrela; **zortzi ordu pertsona eta hilabete bakoitzeko** gutxienez. Hilean, 200 ordu inguruko denbora-poltsa kolektiboa izaten da (pertsona baten lanaldi osoko denbora baino gehixeagoa); orduok banatu egiten direnez, eta termino klasikoetan pentsatuta, baliteke errendimendua galtzea, baina ugaritu egiten dira jakintzak eta aukerak adimen kolektibotik.

Eskainitako denbora banaka eta taldeka aztertzeke mekanismo gisa balio du, bai eta autorregulaziorako tresna modura ere, dauden desbideratzeak, desorekak, aldizkakotasunak eta gainezkatzeak antzemateko. **Kontrolatzeko sistema fiskalizatzailea baino gehiago, zaintzarako mekanismo bat da**, oreka lortu nahi baitu normalean dugun gero eta denbora eskasagoaren eta egin beharreko lan andanaren artean.

## Nola hartzen ditugu erabakiak?

### Gako-esaldiak: Zati solteak

- Aldaketara zabalik egotea
- Kontrako arrazoiak erantzukizunez ematen dira
- Proposamenak sistema bizi batean kokatzen dira.
- Erabakiak mugimenduarenak dira.

### Gako-esaldiak eta gako-hitzak - bunbuiloak:

- Pertsonak gara
- Ahots guztiak entzun behar dira
- Adostasunez - Sentipenez!

### Aipua / hausnarketa:

«Zirkuluaren laukitzea-edo bilatzen ari gara oraindik: elkarrekin hartu nahi ditugu erabakiak, baina dena erabaki gabe; elkarrekin erabaki, baina erabaki hainbeste zailtasunik gabe; eragina izateko eta ekiteko ahalmena handitu nahi dugu, baina ezabatu nahi dugun eredu hierarkikoa errepikatu gabe. (...) WIKIKRAZIA, zergatik ez? Elkarte bakoitzak bere bideak bilatzeko aukera izango du, besteekin partekatuta eta, bide batez, ekarpenak egin ibiltzen ari garen bide honi, hau da, botere kolektiboaren bitartez errealtatea eraldatzeko bideari». Wikitokiren 2018ko egonaldiak [Kolektiboan antolatzeako egonaldia](#) (Arterra)

## Adostasuna, erabakiak hartzeko era modura


*Eztabaida amaigabeak gainditu nahi ditu, adostasunak behartu eta desadostasunak erreprimitu gabe, tolerantzia-maila areagotuta.*

- **Adostasuna:** Printzipio honek gidatzen du erabakiak hartzeko prozesua, eta argudiatutako kontrako arrazoirik ez egotean datza. Erabaki bat hartu ahalko da, baldin eta inork ez badu kontrako arrazoi argudiatu eta funtsezkorik.
- **Efizientzia:** Proposamenak argi formulatu behar dira, eta baliozkotasun-epe bat eduki behar dute.
- **Tolerantzia-maila** (barne-hausnarketa): Horrekin bizi naiteke? Proposamenari oniritzia eman diezaioket, aurrera atera dadin? Edo aurretik ebaluatuko dugu, nire beldurrak betetzen ote diren ikusteko?
- **Konfiantza:** Proposamena nahikoa ona da oraingoz eta saiatzeko nahikoa segurua? Azpiko ideiak dio entitateak aurrera egin dezakeela, konfiantza oinarri, guztiok ados ez gauden eta batzuek beste molde batez egingo luketen arren.
- **Ekitatea:** Garrantzitsua da **ahots guztiak entzutea**, entitateak aberastasunik eta sormenik gal ez dezan, eta gatazkak saihesteko. Kontua da erabaki batean inplikaturik daudenak erabaki horren parte izatea. Hori dela-eta, adostasun-prozesua txandaka egiten da, zirkuluko kide guztiek hitz egin dezaten.

Wikitokin, zirkuluko kide guztiek bidali ditzakete beren proposamenak edo besteengandik jasotakoak. Zirkulu bakoitzak bere jardun-eremuari dagozkion proposamenak jorratzen ditu. Proposamena argi eta labur formulatu behar da, eta informazio osagarria eduki behar du erantsita. Aurretik, zirkuluko erraztaileari bidali behar zaio, gai-zerrendara sar dezan; gai-zerrenda bilera baino 10 egun lehenago bidaltzen zaio zirkulu osoari, kideek aukera izan dezaten aurretiaz aztertzeko. Erabakia hartutakoan, idazkariak horren berri ematen die kide guztiei, aktaren laburpena bidaliz (akta osorako esteka barne). Erabaki estrategikoak txanda bidez hartzen dira, soziokraziak finkaturiko prozesuari jarraikiz.

**Txandetan aukera dago eragozpenak adierazteko** (Latinoamerikan oharrak esaten diete); hasierako proposamena hobetzen dute, eta oparizat hartzen dira. Erakunde **osoaren ongizatean oinarritutako** argudioak oparitzen dira. Adostasunak lortzea (edo desadostasunak arintzea) da helburua, eta, horretarako, proposamenak zehatz-mehatz lantzen dira. Bermatzen da, halaber, ahots guztiek aukera dutela —elkarren segidako txandetan— hitz egiteko, eta entzute, ñabardura eta aberastasun kolektiboak indartzen dira; kontrako arrazoiak edo eragozpenak modu argudiatu eta propositiboan aztertzen dira, hasierako proposamenak hobetzeko.

## Erabakiak hartzea: bederatzi urrats, hiru denboratan



### 1) ARGITZEA

1. Proposamena argitzea
2. Proposamenari erantzutea
3. Proposamena doitzea. Proposamena formulatzea, onets dezaten.

### 2) ERABAKITZEA

4. Eragozpenak hartzea: eragozpenik dagoen edo ez jakiteko txanda + eragozpenak entzuteko txanda
5. Proposamena osatzea: proposamena hobetzea, eragozpenak entzunda
6. Proposamen berria formulatzea, onets dezaten, eta adostasuna lortzea.

### 3) HEDATZEA

7. Erabakitako proposamena idaztea
8. Testua onestea
9. Prozesua ebaluatu eta ospatzea

## Rolak aurretiko hautagaitzarik gabe hautatzea

Wikitokin, garrantzitsua da boterearen eta zereginen ardurua guztion artean hartzea, eta horregatik, rolek oso eginkizun garrantzitsua betetzen dute. Rolak txandaka banatzen dira, ez daitezten pertsonalizatu (rola eginkizunari dagokio, pertsonari baino gehiago; hala ere, pertsona bakoitzak bere nortasuna kutsatzen dio rolari, jakina).

*Soziokrazian, pertsonak ez dute beren burua proposatzen rola betetzeko: taldeak zehazten du zer rol behar dituen, baina rol horiek beteko dituzten pertsonak zer ezaugarri eduki behar dituzten ere. Gero, bozketa ireki eta argudiatua egiten da, eta rol bakoitza betetzeko pertsonarik egokiena hautatzen dugu.*

Zirkuluko kideek, rola jokatzeko behar diren ezaugarriak argi izanik, egokien iritzitako pertsona proposatzen dute, eta babes gehien jaso duena aukeratzen da, adostuta. Horrek laguntzen du mailei lotutako logika ezarriak hausten, egoak gainditzen eta ezkutuko lidergoak azaleratzen.

### Hautaketa irekirako urratsak:

1. **Argitzea.** Rolaren eginkizunak zehaztea eta rola eskatzen dituen ezaugarriak zerrendatzea.
2. **Banakako izendapenerako boto-paperak.** Boto-paperetan, hautagaiaren eta boto-ematearen izena idatzi behar dira, eta idazkariari eman, zenbaketa egin dezan.
3. **Argudioak entzuteko txanda.** Pertsona bakoitzak bere argudioak azaltzen ditu, eztabaidatu gabe.
4. **Aldaketak egitera bultzatzeko txanda.** Erraztaileak txanda bat egingo du (bai/ez), inork botoa aldatu nahiko balu ere. Baietz bada, argudio berriak azaltzera bultzatuko dugu.
5. **Argudio gehigarrietarako txanda.**
6. **Hautagaia proposatzea.** Zirkuluko ez den norbait hautatzen bada, hautagai bat eta ordeko bat aukeratuko dira.
7. **Adostasun-txanda.** Bai/ez. Gainerako guztiek hitz egindakoan hartuko du hitza hautagaiak. Eragozpen kopuruaren arabera, erraztaileak haiek ebazteko edo beste proposamen/hautagai bat bilatzeko eskatuko dio taldeari. Hautatuak rola onartu beharko du, uko egiteko pisuzko arrazoirik ezean.
8. **Ospatzea**

## Nola zaintzen dugu elkar?

### Gako-esaldiak: Zati solteak

- Elkar zaintzea eta geure burua zaintzea
- Amankomunekoari eskainitako denborak
- Elkar
- Entzute intuitiboa
- Zaintzarekin elkarsortzen
- Gaurko aukerarik onena probatzen
- Su ez-tian, jolas ez-tian
- Entzunez eta onetsiz

### Gako-esaldiak eta gako-hitzak - bunbuiloak:

- Bizitza erdigunean jartzea
- Gure zaintza, gure izana
- Hurbiltasuna
- Besteekin sentitzea
- Elkarrekin eraikitzen
- Des-dramatizatzen
- Hitz egiten

## GURE ZAINZA, GURE IZANA

### Atarikoak

Gure esperimendu eta erronka handienetako bat zera da: zaintza-giro orokortua lortzea eta hari eustea. Bizitza erdigunean benetan jartzea da helburua, baita laneko eremuan ere. Arreta ematea (ez nahitaez haiek konpontzea) emozioen eta harremanen inguruko premiei eta bidean sortzen diren ondoezei, tentsioei, nekeei, desadostasunei, anibalentziei eta gatazkei. Afektuak zabaltzea. Gorputzak eginahal horretara jartzea. Behar den denbora eskaintzea (beti izango da laburra, edo behar dena baino askoz laburragoa).

Elkar zaintzen dugu (ez modu formalean), zaintzeko tresnak eta rolak hartuta, baita hurbil egonez eta elkarri entzunez ere. Xehetasunak zaintzea, egunerokotasunean, itxuraz osagarria den horretan, eremu informalean, hamaiketakoan jaten dugun mokadutxoan eta torrada-uneetan, *officean* emaniko momentuetan, bazkalorduetan, *birra barrialean*, etab. Hortxe dago magiaren zati handi bat!

### Rolak

Zaintza kolektiboetarako rol espezifikokoak

- **Wikizainak:** Emozioak kudeatzen dituzte, gure arteko harremanak osasungarriagoak izan daitezten eta ongizatezko giroa gailendu dadin. Rola baino gehiago, saiakera bat da laguntzeko eta bidelagun aritzeko azpiegitura immaterial eta ez-aditua sortzeko. Elkar eta nork bere burua ZAINZKEKO gutxieneko baldintzei bide jartzea dute xede, eta, horretarako, askotariko protokoloak eta gailuak diseinatzen eta probatzen dituzte. */// Bi pertsona. Urtean behin edo bi urtean behin aldatzen dira, hasieran ezarritako helburuen zikloa amaitutzat jotzen denean.*
- **Ostalaria:** Wikitokiren oinarrizko eta eguneroko funtzionamendua zaintzen du, hanka bat du kudeaketarekin eta administrazioarekin zerikusia duten kontuetan, eta bestea harremanekin, dinamizazioarekin eta komunikazioarekin lotutako zereginetan. */// Kontratatua. Ez da txandakatzen. Barruko lan-hitzarmena. Ostalari-Taldeak laguntzen dio.*
- **Amabitxia:** Anfritroi-lanak egiten ditu, hau da, harrera egiten die tokia erabiltzen duten kanpoko pertsoneri eta taldeei edo komunitatera sartzen diren kide berriei. */// Rol hau premien arabera banatzen da. Etengabe txandakatzen da; hautaketa librea.*
- **Baitokerra:** Tokiari edo alderdi fisikoari lotutako zereginenez arduratzen da: landareak zaindu eta ureztatzeaz eta *officerako* eskaera egiteaz (infusioak, kafea, ez-tia, galletak eta abar). */// Hilero txandakatzen da.*
- **Gremling-ehiztaria:** *Officea* egoera onean edukitzeaz arduratzen da; alegia, osasungarritasun eta higieñez: garbiketa (hoz-kailua, mikrouhin-labea, trapuak eta abar), zabor konpostagarria kudeatzea. */// Hilero txandakatzen da.*



## Ekosistema emozionalaren zerbitzurako tresnak



### Orain arte, hauek jarri ditugu praktikan:

- **Gure artean:** Emozioak kudeatzeko saio hauek komunitate osoari zuzentzen zaizkio, nola gauden, zer sentitzen dugun eta zer behar dugun partekatze eta taldean hori guztia kontuan hartzeko. Saioek gai askea edo zehatza, problematika zehatz baten gainekoa, izango dute.
- **Elkarrizketa pertsonalak:** Bilera pribatu hauetan, barrenak husten dira, sostengua ematen da, eta informazioa partekatzen da.
- **Barrenak husteko bilerak:** Bilera hauek noizean behin egiten dira, behar duenak eskatuta; deialdia irekia edo murriztua dute.
- **Potate deia:** Eskakerak, iradokizunak, alertak eta abar egiteko postontzia.
- **Bidelaguna:** Aldi baterako rol honek jarraipena egiten dio gatazka edo arazo emozional zehatz bati, harik eta egoera hobetzen den arte (hobe ukitutakoengandik hurbil dagoen norbait bada).
- **Lerro gorriak:** Joerei eta pribilegioei buruzko hausnarketak, hobetu behar diren kontuen adierazleak/alertak, gure arteko jarduera onen protokoloak.

Protokolo eta gailu zehatzetatik harago, ordea, adi eta prestu egotea da gakoa. Modu enpatikoa aktibatuta eta belarriak erne. Zaintzei tokia ematea, zeharka eta modu interdimentsionalean. Desikasi eta praktikatzea. Alde batera utzi behar da besteak epaitzea eta besteei errua egotzi eta exijitzea; lehenik, geure buruari begiratu behar diogu, eta erantzukidetasunez eta asmo eraikitzailez hurbildu behar gara gertaera objektiboetara, eta emozioen nahiz premia pertsonalekin lotutako emozio eta sentimenduetara.

## Nola konpontzen ditugu gatazkak?

### Gako-esaldiak: Zati solteak

- «Ez» esaten jakitea
- Adi autoexijentziarekin!
- Xehetasunak zaintzea
- Konektatzea
- Aske ibiltzea

### Gako-esaldiak eta gako-hitzak - bunbuiloak:

- Nola uztartu interes desberdinak, komunak ez badira?
- Onetik eta txarretik ikastea
- Sustraitzea
- Permakultura
- Eskuordetzea, konfiantza izatea eta Nltik GUr*a* igarotzea!

## Prozesua baloratzea

Neurri handiko erantzukidetasuna, konfiantza, adostasuna, pazientzia eta gardentasuna behar dira, bai pertsonen artean, bai komunitate osotik nahiz komunitate osorantz.

## Sormenez eta esperimenez

- Ospatzeko, arakatzeko, erabakiak hartzeko eta emozioak kudeatzeko metodologia berriak sortu eta esperimendu behar dira.
- Soziokraziaren arauak era ebolutibo eta adostu batez osatu behar dira Wikitoki komunitatearen DNArekin eta ildo nagusiekin (feminismoak, KIDetasuna, ekologia, harremanak, ekonomia sozial eta solidarioa (ESS), euskara, dibertsitatea, lurraldea/auzoa, kode irekia, etab.).

## Geure burua zaindu eta elkar zaindu

- Zaintza-giroa orokorra eta **Wikizain** talde-rola sortu behar dira, bai sortzen diren gatazkez eta ondorez arduratzeko, bai protokoloak eta gailuak sortzeko (komunitatea, oro har, eta zaintzaileak, zehazki, zaintzeko).
- Kide berriei lagundu, geratzen direnak ohoratu eta alde egiten dutenekin harremanetan jarraitu beharra dago. Komunitatea, aldatzen den familia hedatua, nahasketa mestizoen emaitza, eta ikasi behar da horiek soziolaguntzaren bidez kudeatzen.
- Elkarrekiko mendekotasun eta zaurgarritasun sakonak onartu behar dira, eta lotura osasungarriak ezartzea bilatu. Saiatu behar da presarik ez izaten, eta goza gaitezen elkarrekin gure burua nahiz elkar ZAINTZEN ikasteko prozesuaz. Zaintza, guztiontzat onuragarri.
- Xehetasunak zaindu behar dira egunerokotasunean, itxuraz osagarria den horretan eta eremu informalean.

## Boterea egitura argi eta antolatu batean banatuz

Boterearen erabilera desberdina da bakoitzarentzat, eta horregatik behar da **egitura argi** bat, antolakunde osoak diseinatu eta aldizka ebaluatzen duena; horrez gain, barne-komunikaziorako sistema antolatu eta arin bat behar da. Gainera, garrantzitsua da proiektu komuna garatzean **erantzukizunez** jokatzeko, proiektuaren gaineko lotura eta ezagutza handiagoa izatea, guztiok edukitzea eragiteko gaitasuna, **rolak banatzea** eta kidego-sentipena garatzea. Rol guztiak txandakatu behar dira; batez ere, koordinazio eta zaintza arlokoak.

Wikitokiko kideen arteko **konfiantza** da Wikikraziaren oinarria eta elikabidea. Alabaina, garrantzitsua da radarra piztuta edukitzea, botere-desorekak identifikatu eta jorrazteko. Hori guztia ikasiko da elkarrekin lan eginez, laneko eta norberaren eremuak bereiziz, gure pribilegioak onartuz eta kokatuz, eta haiek banaka nahiz taldean ikusiz.

## Ebaluatuz eta ospatuz

Ebaluatu egiten dugu ezagutzak finkatzeko, oroimena edukitzeko, erabakiak doitzeko eta sentipenak ekualizatzeko. Zirkulu guztiek (eta, ahal bada, baita lantaldeek ere) urtero honako hauek detektatzen dituzte, eta antolakunde osoari helarazten dizkiote:

- Bost jomuga.
- Zailtasun eta ikaskuntza nagusia.

Ezinbestekoa da lorpenak ospatzeko uneak, denborak eta aurrekontuak gordetzea.

## Errazte-lanean eta komunikazio ez-bortitzean trebatuz

- Komunikazio-gune gehiago sortuz, gatazken kudeaketarako erreminta gehiago egon daitezten.
- Erakunde osoak balio komunak barneratuz.
- Taldeei errazteko prestakuntza hartuz pixkanaka, [iiface](#) elkartearekin.
- Sormen-dosiak eta komunikazio ez-bortitza aplikatuz; komunikazio ez-bortitzaren teoriak proposatzen du epaitzea, errua egozte eta exijitzea atzean uztea. Komunikatzeko modu horrek barrurantz begiratzen du aurrena, **gertatzen zaigunaren erantzukideak** izan gaitezen, eta modu asertibo eta eraikitzailean komunika dezagun gure gatazkek konpontzeko zer behar dugun.

## MANTRA honekin

*GAUZA GUTXIAGO*

*ZAINDUAGOAK*

*ERRAZAGOAK*

*SAKONAGOAK*

*INTERES KOMUNEKIN BATERATUAGOAK*

*Eta asko eta askotarikoak izan daitezen, bakoitza*

*IREKIAGOA*

*PARTEKATUAGOA*

*BANATUAGOA*

Uztar ditzagun, batetik, desazkundearekin lotutako autokontentzioaren zentzu gero eta handiagoa eta onura publikoko oparotasunaren ideia. Eta ideia hori barneratu nahian errepikatzen dugu konjuru hori, produktibismo ikasiak gero eta gutxiago traiziona gaitzan, eta bizitza erdigunean jartzea gauzatu dezagun.

## Gonbidapena

Wikikrazia transferituz, interesdun guztiak gonbidatzen ditugu bat egin dezaten esplorazio eta baterako sorkuntzako bidaia honekin, era horretan elkarlaneko gobernantzaren sarean inpaktu iraunkorra lortzeko.

Material honekin, bada, urrats bat eman nahi dugu elkarrengandik ikasteko eta elkarri laguntzeko sareen sorkuntzan, entitateok, erakundeok eta kolektibok, gure egiturak berrikusteaz gainera, egitura horiek berritzeko eta gure premietara egokitzeko agentzia izan dezagun, zaintzak erdigunean jartzearekin batera.

## Harremanetarako

Wikitoki Elkarsorkuntzarako Laborategia

Harrobi plaza 5, 2 - 48003 Bilbo

[www.wikitoki.org](http://www.wikitoki.org)

[info@wikitoki.org](mailto:info@wikitoki.org)

[twitter](#) / [instagram](#)

## Kredituak

Sorkuntza kolektiboa: Wikitoki Elkarsorkuntzarako Laborategia

Babeslea: iLab – Euskadiko Parte-hartzeko Berrikuntza Gunea

Laguntzailea: REAS Euskadi

Lan- eta koordinazio-taldea: Lorna Biermann López eta Isabel Tomás Pérez

Ilustrazioak eta maketazioa: Saro Agustina Pachón Peláez

## Esker ona

Wikitoki komunitateari: daudenei, egon zirenei eta egongo direnei.

Kontraste-bileretan parte hartu duten REAS Euskadiko entitateei.

## Informazio gehiago

<https://wikitoki.org/proiektuak/wikikrazia>

## TEXTO WEB

2023an, bost urte bete genituen Wikitokiren oraingo gobernantza-ereduarekin (hots, [Wikikraziarekin](#)) esperimentatzen. Eta, aldian behin bisita egiten diguten entitateei ikasitakoa ahoz helarazteaz gainera, esperientzia ebaluatu, laburbildu eta partekatu behar genuela erabaki genuen.





[Wikikrazia: erakundeak autokudeatzeko gobernantza-modu bat](#) aurkezten dizuegu, [iLab – Euskadiko Parte-hartzeko Berrikuntza Gunean](#) parte hartzeko moduak berritze aldera lan egiten duten toki-ekimenen [maparen](#) parte izan gaitzen.

2024ko martxoan, iLab laborategiak, [beste ekimen batzuekin batera](#), Wikikrazia hautatu zuen parte-hartzearen eremuko esperientziak eta ikaskuntzak transferituko zituzten ekintzak abiatzeko. Horrek asko animatu gintuen, eta lan-prozesu produktibo bat planifikatzera eta bertan murgiltzera bultzatu.

Orain, zuekin partekatu nahi ditugu lanean emandako hilabeteotako emaitzak. Lan hori REAS Euskadirekin elkarlanean egin dugu, eta ekonomia sozial eta solidarioaren arloko entitateen laguntza eta kontrastea jaso ditugu.

### [Transferitzeko materiala: Mapa zabalgarri ilustratua](#)

Prozesuaren intsumoak:

-  [Deusto Cities-en testua](#)
-  [Un paseo por Wikitoki bideoa](#)
-  [PDF](#)
-  [...](#)